

**SIX JOURS CE PRINTEMPS-LÀ / SIX DAYS IN SPRING • Belgika - Frantzia - Luxenburgo**

Joachim Lafosse (zuzendari eta gidolarikidea), Eye Haïdara eta Jules Waringo (aktoreak), Jean-Françoise Hengens (argazki zuzendaria) eta Régine Vial (ekoizlea)

“Maileguan” hartutako oporrak udaberri urdin betean



Jean-Françoise Hengens, Eye Haïdara, Joachim Lafosse, Jules Waringo eta Régine Vial prentsaurrea agertu ziren arratseko ordu txikitán.

JORGE FUENBUENA

SERGIO BASURKO

Joachim Lafosse badaki zer den Donostian lehiatzea (eta garaitzea): 2015ean, *Les chevaliers blancs* filmarekin Zuzendari onenaren Zilarrezko Maskorra eskuratu baitzuen; eta duela bi urte, *Un silence* pelikula aurkeztu zuen. Aurten, belgikar filmegilea atzera lehiatuko da *Six jours ce printemps-là* izenburuko lanarekin.

Batere ez ohikoa izanik, proiektioaren osteko prentsaurrekoa filmaren argazkigintzari buruzko galdera tekniko batekin hasi zen. Laffossek Iparraldeko argiarekin lan egitea ohituta dagoela aitortu zuen, baina “oraingoan hegoaldeko argiarekin lan egin dut; eta aldea izugarria da, zoragarria da Mediterraneoeko argitasuna”. Eta bertan zegoen

Jean-Françoise Hengens argazki zuzendariak pasa zion hitza: “Zailtasunez eta kontrastez beteriko lana izan da —lekukoa hartu dio argazkilariak—; batetik, hondartza eta itsasaldeko argitasun itsugarria genuen, eta bestalde, barrualdeetako iluntasuna. Ikusi duzue, kandelen argiekin eta haiek inguruan sortzen duten argi parasittoa baliatu ditugu argiztapenean”.

Baina gatozen testuinguru pixka bat ematera. Sana (Eye Haïdara) protagonistak bere semeek udaberriko oporrak izan ditzatela nahi du, baina asmo guztiek porrot egingo dute. Ez du dirurik. Baditu, ordea, senar ohiaren gurasoen oporretako etxetzarraren giltzak. Elkarrekin, Rivierako etxe horretan geratzea erabakiko dute, inori ezer esan gabe.

Sei egun eguzkitsu, inozentziaren amaiera markatuko dutenak.

Zuzendariak azaldu zuenez, “gidoia nire haurtzaroko bizipenetan oinarrituta dago, nire ama dibortziatu berriak aitona-amonen etxera oporretan eraman gintuen ezkutuan. Sekulako abentura sekretua izan zen. Eta egoera honek —gaineratzen du—, zer pentsatu eragiten du. Gauzak ezkutuan egin beharrak suposatzen duen izugarritasunaz dihardu pelikulak”.

Laffoseren zuzendaritza bikaina da aktoreekiko gertutasunean; hezur-haragizko filma da. Gidoia, Chloé Duponchellerekin batera idatzia, desfokuratze oso indartsu eta eremu sakontasun txikitán oinarritzen da, hasieratik gorputzen eta paisaia fisikoaren arteko liskarra markatzen


du, non ez bata ez bestea ez diren inoiz egokitzen. Erritmoari eusten dio, eta ez du filmaren iraupena luzatzen esan beharreko dena esanda dagoenean.

Aktoreek sendotasun handiz eusten diote filmari. Eye Haïdarak, amaren rolean, ahultasuna eta indarra ematen ditu neurri berean; semeak bikain daude beren naturaltasunean; inoiz artifizial sentitzen ez den drama bat indartzen dute ñabardura apenas sumaezinekin.

Joachim Lafosse belgikarrak ahalgin berezia egin du bilbea haurren eta amaren begiradatik kontatzeko. Hortaz, esango genuke sentsazioak direla heltzen zaizkigunak: ume bikote bihurriaren eta horien ama nekaezinaren oporraldi ezkutua dira pelikula honen benetako arima.

Lafosse's true springtime story

In *Six jours ce printemps-là / Six Days in Spring*, Belgian director Joachim Lafosse revisits a poignant moment from his childhood, a story he had long been eager to share. The film recalls the period when his mother, recently divorced, took Lafosse and his brother on vacation. As she was unable to afford a proper holiday, the children suggested the idea of going to their paternal grandparents' house. Due to the strained, even violent, relationship between their mother and her former in-laws, they all had to keep the visit shrouded in secrecy. “I’ll never forget that week”, said Lafosse at the press conference yesterday. This film, competing in the Official Section, delicately unfolds a story about the fragility of family bonds, capturing the fear of children forced to hide and the emotional tension of parental conflict. Featuring Eye Haïdara, Jules Waringo, and young actors Leonis and Teodor Pinero Müller, the film is a moving tribute to Lafosse’s mother and the life lesson she imparted: to cherish life, embrace joy, and never give up, even in the face of adversity.



LA ÚNICA ENTIDAD DE GESTIÓN ESPECIALIZADA
EN AUTORES AUDIOVISUALES.

AHORA ES EL MOMENTO. ÚNETE. WWW.DAMAAUTOR.ES